# Iragarpenak
# Anuncios

HERRIOGASUN ETA DIRUBIDEETAKO SAILA

IRAGARPENA, Akurapen Batzorde Nagusiarena, Barakaldon dagoen Euskadiko Teknika-Museoko instalazioen egokitze-lanak hartzen dituen Aurrez Onartutako Enkanteari eman zaion behin-betiko esleipena iragartzen duena. (Esp. A.B.N. 288/88) 7442

DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y FINANZAS

ANUNCIO de la Comisión Central de Contratación, por el que se dá publicidad a la adjudicación definitiva recaída en la Subasta con Admisión Previa que tiene por objeto las obras de acondicionamiento de las instalaciones del Museo de la Técnica de Euskadi, sito en Baracaldo (Expte.C.C.C. 288/88) 7442

# Euskadi Osorako Erabakiak
# Disposiciones Generales del País Vasco

## LEHENDAKARITZA

**3109**

301/1988 DEKRETUA, abenduaren 13koa, Instituto Vasco de la Mujer/Emakumearen Euskal Erakundearen antolaketa eta ihardutze-egitura ezartzen duena.

Instituto Vasco de la Mujer/Emakumearen Euskal Erakundea, otasilaren 5eko 2/1988 Legearen bidez sortua, Eusko Legebiltzarrak eraikitako Erakundea da. Erakundearen helburua, Euskal Autonomi Elkarte osoan ekintza erakidetu baten bidez emakumearen diskriminazio modu guztiak egitan baztertzea lortzea da, hortarako Euskal Herriko giza, kultura, ekonomia eta politikako bizitzaren arlo guztietan partaidetza sustatuko duten beharrezko neurriak hartuz.

Erakundea martxan jartzeko, sortaratze Legean ohartemandako zuzendaritza ihardute-sailen eginkizunak garatu behar dira, baita berehalako eraginkortasuna lortzeko oinarrizko egitura eman ere. Ihardute-sailak, dinamikak berak sortarazten dituen administrazio-ataletan oinarritzen dira. Horregaitik, Dekretu honetan ohartemandakoa garatzen eta ezartzen duten erabaki gehigarriak emateko aginpidea eman behar zaio Erakundeko Zuzendariari, egotzitako egitekoak burutu ahal izan ditzan.

Horren ondorioz, eta Lehendakaritzaren proposamenez eta mila bederatziehun eta laurogeitazortziko abenduaren 13ko bilkuran Jaurlaritzako Kontseiluak aztertu eta onartu ondoren,

XEDATU DUT:

### I IDAZPURUA
### XEDAPEN OROKORRAK

*1. Atala.*– Nolakoa eta lege-jaurpideak.

«Instituto Vasco de la Mujer / Emakumearen Euskal Erakundea», Eusko Legebiltzarrak otsailaren 5eko 2/1988 Legearen bidez sortua, Ihardutze-Erakunde Burujabea da, Lehendakaritzari atxikia, legezko berenezko nortasunduna, eta aipatutako Legean, Euskadiko Aurrekontu-Errejimenari buruzko abenduaren 20ko 31/1983

## PRESIDENCIA

**3109**

DECRETO 301/1988, de 13 de diciembre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Instituto Vasco de la Mujer / Emakumearen Euskal Erakundea.

El Instituto Vasco de la Mujer / Emakumearen Euskal Erakundea creado por Ley 2/1988, de 5 de febrero, es el Organismo instituido por el Parlamento Vasco para que, a través de una acción coordinada en el ámbito de la Comunidad Autónoma Vasca, se logre la eliminación efectiva de todas las formas de discriminación de la mujer, adoptándose para ello las medidas necesarias que fomenten su participación en todos los ámbitos de la vida política, económica, cultural y social del País Vasco.

La puesta en funcionamiento del Organismo exige desarrollar las funciones de los órganos de dirección contemplados en la Ley de creación, así como dotarlo de una estructura básica que permita su inmediata operatividad, órganos que habrán de apoyarse en las unidades administrativas que la propia dinámica exija crear, lo que aconseja atribuir al Director del Instituto la competencia para dictar las resoluciones complementarias en desarrollo y aplicación de lo previsto en el presente Decreto, a fin de ejecutar las funciones encomendadas al mismo.

En su virtud, a propuesta de la Presidencia y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su reunión del día 13 de diciembre mil novecientos ochenta y ocho,

DISPONGO:

### CAPITULO I
### DISPOSICIONES GENERALES

*Artículo 1.*– Naturaleza y régimen jurídico.

El Instituto Vasco de la Mujer / Emakumearen Euskal Erakundea, creado por Ley 2/1988, de 5 de febrero, del Parlamento Vasco, es un Organismo Autónomo de carácter administrativo, dotado de personalidad jurídica propia adscrito a la Presidencia o Lehendakaritza, que se regirá por lo dispuesto en la citada Ley,

Legean, Euskal Herriko Herriogasuntza Nagusiaren Antolarauei buruzko indarreango lege-manuen Eraberritutako Ikazkera onartzen duen maiatzaren 17ko 1/1988 Legegintza-Dekretuan, Dekretu honetan eta Euskal Autonomi Elkarteko Iraskundegoren-mailako Izaikiei ezargarri den legedi guztian xedatutakoaz arautuko da.

2. *Atala.*– Helburuak eta Egitekoak.

Bere sortarazte Legean ohartemandakoarekin bat etorriz, «Instituto Vasco de la Mujer / Emakumearen Euskal Erakundea»-k Euskal Herriko politika, ekonomia, kultura eta gizarte-bizitzako alor guztietan gizonezkoen eta emakumezkoen arteko benetako eta egiazko berdintasuna lortzea du funtsezko xede, eta hori lortzeko helburu gisa, Erakundeak seksuen arteko berdintasuna errazteko bideei bultz egitea eta hori bete-betean lortzeko eragozpen izan daitezen izatezko eta lege-aldetikako oztopo guztiak kentzea, eta Euskadin emakumeari bereizkeria egiteko era guztiak ezabatzea erabaki du, hortarako beharrezko neurriak hartuz eta honako egitekoak burutuz:

a) Gorago azaldutako helburuak lortzeko xedezko artezpideak antolatzea, eta Autonomi Elkarteko herriagintari ezberdinek horiek erabili ditzaten indar egitea.

b) Indarrean dauden legeen eta horiek erabiltzearen arte izatea, eta, behar izanez gero, bi seksutakoen artean benetako eta egiazko berdintasuna izatea zailtzen edo eragozten duten oztopo guztiak ezabatzeko xedezko lege-adakuntzetarako saloak egitea.

c) Politika, ekonomia, kultura eta gizarte-bizitzan emakumea aurkitzen deneko egoera aztertu, aribide-alor ezberdinetan aurrera eraman beharreko politika taiutzeko xedezko azterlangintza bereziki suztatuz, horretarako behar diren eskuarteak eskuratuz.

d) Emakumeari datxezkonak izan eta Eusko Jaurlaritzak eta Foru-Diputazioek gerta ditzaten oinarrizko burupideen antolatze-aldian txostenak eta erizpenak ematea.

e) Autonomi Elkarteko herri-agintaritza bereziek burutu behar eta emakumearen egoeran eraginik izan dezaten ihardunerako egitarauen artean beharrezko lankidetza-neurriak bultzatzea.

f) Asmotango helburuak lortzeko, Eusko Jaurlaritzako Sail bereziei, Diputazioei eta Udalei aholduak eta laguntza ematea, eta hori, Toki-Jaurpidetarako Oinarri-Arauak Araupetzezko Legeko 28. atalean agindutakoaren arauera, Erakundeak eginbideratuko dituen ekintzen osagarritarakoak jartzeko Udalei akio eginez eta eskatuz, batipat.

g) Emakumearen eta bereziki laguntza-beharrik haundienean aurkitzen direnen aldeko zerbitzugintza suztatzea.

h) Jendea kontura-arazteko, beharrezko eritzitako suztapen eta zabalkunde-ekintzen bidez, herritar guztiei eta Euskal Herriko emakumeei bereziki emakumeak zer arazo diteun jakinaraztea.

Seksua dela eta emakumearen eskubideak be· :izkeriarik, gehiegikeriarik izan dutelako edo horiek hautsi direlako egin daitezen salaketak Erakundearen bidez bideratuko dira, eta egoki izan daitezen ekintzak erabakiko ditu.

i) Euren helburu edo egitekoak direla eta Erakundearen helburuak lortzeko lagungarri izan daitezen elkarte, iraskunde eta beste izaiki eta ihardutze-erakun-

en la Ley 31/1983, de 20 de diciembre, de Régimen Presupuestario de Euskadi, el Decreto Legislativo 1/1988, de 17 de mayo, por el que se aprueba el texto refundido de las disposiciones legales vigentes sobre Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, por el presente Decreto y demás legislación aplicable a los Entes Institucionales de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

*Artículo 2.*– Fines y Funciones.

De conformidad con lo previsto en su Ley de creación, el fin esencial del Instituto Vasco de la Mujer / Emakumearen Euskal Erakundea es la consecución de la igualdad real y efectiva del hombre y la mujer en todos los ámbitos de la vida política, económica, cultural y social del País Vasco, fijándose como objetivos la eliminación efectiva de todas las formas de discriminación de la mujer, promoviendo las condiciones que faciliten la igualdad, de hecho y de derecho, entre los sexos y la remoción de los obstáculos que la impiden, adoptando las medidas necesarias para ello y ejecutando las funciones siguientes:

a) Elaborar las directrices destinadas a conseguir los fines anteriormente propuestos, e impulsar su aplicación por los distintos poderes públicos de la Comunidad Autónoma.

b) Realizar el seguimiento de la legislación vigente y su aplicación, así como, en su caso, elaborar las propuestas de reformas legislativas dirigidas a eliminar las trabas que dificulten o impidan la igualdad real y efectiva entre ambos sexos.

c) Estudiar la situación de la mujer en la vida política, económica, cultural y social, promoviendo especialmente la realización de estudios dirigidos a perfilar la política a realizar en las distintas áreas de actuación, dotándose de los medios necesarios al efecto.

d) Emitir informes y dictámenes en el curso del procedimiento de elaboración de las disposiciones generales que, afectando a la mujer, promoviesen el Gobierno Vasco y las Diputaciones Forales,

e) Impulsar las medidas de coordinación necesarias entre los programas de actuación a desarrollar por los diversos poderes públicos de la Comunidad Autónoma, y que tengan incidencia en la situación de la mujer.

f) Prestar asesoramiento y colaboración a los distintos Departamentos del Gobierno Vasco, Diputaciones y Ayuntamientos, para lograr las metas propuestas y en particular instar y proponer a los Ayuntamientos actividades complementarias a las que realizará el Instituto, de acuerdo a lo dispuesto en el artículo 28 de la Ley Reguladora de Bases del Régimen Local.

g) Fomentar la prestación de servicios a favor de la mujer y en particular los dirigidos a aquéllas que tengan especial necesidad de ayuda.

h) Informar a los ciudadanos y especialmente a las mujeres del País Vasco sobre los problemas de la mujer, realizando las campañas de sensibilización, promoción y difusión que se consideren oportunas.

Asimismo, el Instituto servirá de cauce a través del cual puedan canalizarse las denuncias de discriminación, abusos o violaciones de los derechos de la mujer por razón de sexo, y arbitrará las acciones correspondientes.

i) Establecer relaciones y cauces de participación con asociaciones, fundaciones y otros entes y organismos que en razón de sus fines o funciones contribuyan a la

deekin, baita beste Autonomia-Elkarteetako, Erresumako eta beste nazioetako antzerako erakunde eta ihardutze-erakundeekin ere, harremanak eta partaidetzarako bideak sortuko ditu.

j) Bere helburuei datxekielako eman lekiokeen beste edozein egiteko.

*3. Atala.*– Egoitza.

«Instituto Vasco de la Mujer / Emakumearen Euskal Erakundea»-k Gasteizen izango du bere egoitza, berak presta ditzaken Lurralde Ordezkaritzen kaltetam barik.

II IDAZPURUA
ANTOLAKETA

*4. Atala.*– «Instituto Vasco de la Mujer / Emakumearen Euskal Erakundea»-ren ihardutze-sailak.

«Instituto Vasco de la Mujer / Emakumearen Euskal Erakundea» sortzeari buruzko otsailaren 5eko 2/1988 Legearen arabera Artezte-Batzordea eta Zuzendaria dira Erakundeko artezte-sailak.

*5. Atala.*– Artezte Batzordea, Osoko Bilkura eta egitekoak,

1. Artezte Batzordeak, Erakundeko artezte-saila denez, honako batzordekideekin osotzen da:

a) Lehendakari: Euskl Jaurlaritzako Lehendakaria.

b) Lehendakariorde: ERakundeko Zuzendaria.

c) Bokalak: Autonomi Elkarteko Arduralaritzaren izeneko lau lagun. Hauek Artezkari-mailakoak izango dira gutxienez eta,

Hezkuntza

Kultura

Lana

Gizarte-Segurantza

Osasunketa

Egaripena

gaiekikoan agintepiderik duten Sailek aurkeztutakoen artetik Jaurlaritzak izendatuko ditu.

Foru-Diputazioaren izeneko hiru lagun: hauen mailak ere aurreko taldearentzat esandakoaren kidekoa izan beharko du gutxienez, eta bakoitzaren Jaurtze-Batzordeak izendatuko ditu.

Autonomi Elkarteko Udaletako hiru lagun: Euskal Autonomi Elkarteko Udalen Elkarteak izendatuak.

Eusko Legebiltzarreko Giza-Eskubideen Batzordearen izeneko bat: hau legegintzaldi bakoitzerako Batzorde horretako kideen artetik aukeratukó da.

Seksuen arteko berdintasunaren alde berenez nahiz lanbidez jokatu izana ondo erakutsi dutenen artetik Eusko Legebiltzarrak legegintzaldi bakoitzerako izendatutako sei lagun.

2. Artezte-Batzordeko Osoko Bilkuraren egitekoak honako hauek dira:

a) Bi seksutakoen artean benetako eta egiazko berdintasuna izatea zailtzen edo eragozten duten oztopoak ezabatzeko zuzendutako neurrien Egitasmoa onartzea. Egitasmo hori Batzorde Iraunkorrak aurkeztuko dio, eta gero Jaurlaritzari aurkeztu beharrekoa izango da.

consecución de los objetivos del Instituto, así como con instituciones y organismos análogos de otras Comunidades Autónomas, del Estado y de la Comunidad Internacional.

j) Cualquier otra función que relacionada con sus fines se le pudiera encomendar.

*Artículo 3.*– Sede.

La sede del Instituto Vasco de la Mujer / Emakumearen Euskal Erakundea, se establecerá en Vitoria-Gasteiz sin perjuicio de las Delegaciones Territoriales que éste habilite.

CAPITULO II
ORGANIZACION

*Artículo 4.*– Organos de Dirección.

El Consejo de Dirección y el Director son los órganos de dirección del Instituto según la Ley 2/1988, de 5 de febrero, sobre creación del Instituto Vasco de la Mujer/Emakumearen Euskal Erakundea.

*Artículo 5.*– Consejo de Dirección, Pleno y funciones.

1. El Consejo de Dirección, como órgano de dirección del Instituto, estará integrado por los siguientes miembros:

a) Presidente: El Lehendakari del Gobierno Vasco

b) Vicepresidente: El Director del Instituto.

c) Vocales: Cuatro representantes de la Administración de la Comunidad Autónoma, con rango, al menos, de Director, designados por el Gobierno de entre los propuestos por los Departamentos con competencia sobre las siguientes materias:

Educación.

Cultura.

Trabajo.

Seguridad Social.

Sanidad.

Consumo.

Tres representantes de las Diputaciones Forales, con rango, al menos, equivalente al del grupo anterior, designados por sus respectivos Consejos de Gobierno.

Tres representantes de los Ayuntamientos de la Comunidad Autónoma designados por la Asociación más representativa de los Municipios de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Un representante de la Comisión de Derechos Humanos del Parlamento Vasco, designado para cada legislatura mediante elección de entre sus miembros.

Seis personas designadas por el Parlamento Vasco para cada legislatura en razón de su acreditada trayectoria personal o profesional en favor de la igualdad entre los sexos.

2. Serán funciones del Pleno del Consejo de Dirección:

a) Aprobar, para su posterior presentación al Gobierno, el Plan de medidas dirigidas a eliminar las trabas que impidan o dificulten la igualdad real y efectiva entre los sexos, que le será presentado por la Comisión Permanente.

b) Emakumea Euskadin aurkitzen deneko egoera haztatuzko Erizpen-idazkia, eta alor horretan herri-agintaritzek izan duten jokabideari buruzko Txostena onartzea. Txosten hori Batzorde Iraunkorrak aurkeztuko dio, eta gero Jaurlaritzari aurkeztu beharrekoa izango da.

c) Erakundearen kudeaketa eta iharduerari buruzko urteko Txostena onartzea.

d) Erakundearen aurrekontuetako aurregitasmoa onartzea, bai ekintzetarako zein diru-ezarketetarako.

3. Artezte-Sailak, gutxienez, bi agizko bilkura egingo ditu urtean, bata lehenengoko sei hilabetekoan eta bestea bigarrenekoan.

Halaber, ohiz bestekoak ere egin ahal izango ditu, bertako Lehendakariak edo Batzorde Iraunkorrak eskatuta.

*6. Atala.*– Batzorde Iraunkorra. Osakera eta egitekoak.

1. Artezte-Batzordeko Batzorde Iraunkorra honela osotuko da:

a) Lehendakari: Erakundeko Zuzendaria.

b) Bokalak: Erakundeko Zuzendariaren proposamenez, Artezte-Batzordeko Osoko Bilkurak bertako batzordekideen artetik izendatuko dituelarik, honako hauek izango dira:

– 2, Eusko Jaurlaritzako Sailetako ordezkarietatik.

– 1, Foru Aldundietako ordezkarietatik.

– 1, Autonomi Elkarteko Udaletako ordezkarietatik.

– 1, Eusko Legebiltzarreko Giza-Eskubideen Batzordeko ordezkaria.

– 3, Eusko Legebiltzarrak Artezte-Batzorderako izendaturikoetatik.

2. Batzorde Iraunkorraren egitekoak hauek dira:

a) «Instituto Vasco de la Mujer / Emakumearen Euskal Erakundea»-ren helburuak betetzeko beharrezko neurriak hartzea.

b) Bostgarren atalean ohartemandako neurrien Egitasmoa, haztatuzko Erizpen-Idazkia eta herri-agintaritzen jakobideari buruzko Txostenaren berri izan eta Artezte-Batzordeko Osoko Bilkurara bidali.

c) Erakundearen kudeaketa eta iharduerari buruzko urteko Txostenaren eta bere aurrekontuetako aurregitasmoaren berri izan eta Artezte-Batzordeko Osoko Bilkurara bidali.

d) Politika, ekonomia, kultura eta gizarte-bizitzan emakumeak duen partaidetza eta bi seksuetako berdintasuna suztatu eta bultzatzeko gaietan Erakundeari dagozkion ekintza zehatzak onartzea.

e) Artezte-Batzordearen Osoko Bilkurak egotzitako beste egiteko guztiak.

*7. Atala.*– Osoko Bilkurako Lehendakariaren eta Artezte-Batzordeko Batzorde Iraunkorreko Lehendakariaren agintepideak.

Osoko Bilkurako Lehendakariaren eta Artezte-Batzordeko Batzorde Iraunkorreko Lehendakariaren agintepideak hauek dira:

a) Osoko Bilkurako eta Batzorde Iraunkorreko batzarretarako dei egitea.

b) Aprobar, para su posterior presentación al Gobierno, el Informe sobre la evaluación de la situación de la mujer en Euskadi, así como la Memoria sobre la actuación de los poderes públicos en este campo, que le será presentado por la Comisión Permanente.

c) Aprobar la Memoria anual sobre gestión y funcionamiento del Organismo.

d) Aprobar el anteproyecto de presupuestos del Organismo, tanto para actividades como para inversiones.

3. El Consejo de Dirección celebrará, al menos, dos reuniones ordinarias al año, una dentro del primer semestre y otra dentro del último.

Igualmente podrá celebrar sesiones extraordinarias a iniciativa de su Presidente o a petición de la Comisión Permanente.

*Artículo 6.*– La Comisión Permanente. Composición y funciones.

1. La Comisión Permanente del Consejo de Dirección estará integrada por:

a) Presidente: Director del Instituto.

b) Vocales: designados por el Pleno del Consejo de Dirección entre sus miembros, a propuesta del Director del Instituto, serán los siguientes:

2 de entre los representantes de los Departamentos del Gobierno Vasco.

1 de entre los representantes de las Diputaciones Forales.

1 de entre los representantes de los Ayuntamientos de la Comunidad Autónoma.

1 el representante de la Comisión de Derechos Humanos del Parlamento Vasco.

3 de entre las personas designadas por el Parlamento Vasco para el Consejo de Dirección.

2. Serán funciones de la Comisión Permanente:

a) Adoptar las medidas necesarias para el cumplimiento de los objetivos del Instituto Vasco de la Mujer / Emakumearen Euskal Erakundea.

b) Conocer y elevar al Pleno del Consejo de Dirección el Plan de medidas, el Informe de evaluación y la Memoria sobre la actuación de los poderes públicos, previstos en el artículo anterior.

c) Conocer y elevar al Pleno del Consejo de Dirección la Memoria anual sobre gestión y funcionamiento del Organismo, así como el anteproyecto de presupuestos del mismo.

d) Aprobar las acciones concretas que, en materia de promoción y fomento de la igualdad de ambos sexos y de la participación de la mujer en la vida política, cultural, económica y social, corresponden al Instituto.

e) Cuantas funciones le sean delegadas por el Pleno del Consejo de Dirección.

*Artículo 7.*– Atribuciones del Presidente del Pleno y del de la Comisión Permanente del Consejo de Dirección.

Corresponden, al Presidente del Pleno y al Presidente de la Comisión Permanente del Consejo de Dirección, las siguientes atribuciones:

a) Convocar las reuniones del Pleno o de la Comisión Permanente.

b) Bilkuretako gai zerrenda zehaztea.

c) Eztabaidak zuzentzea eta, orokorrean, bilkurak egoki burutu daitezen beharrezko beste agintepide guztiak erabiltzea.

d) Berdinketak botu ebazle bidez ebaztea.

*8. Atala.*– Egitekoak ordezkotzan ematea.

Osoko Bilkurak eta Artezte-Batzordeko Batzorde Iraunkorrak, aipatutako ihardutze-sail horiek erabakitako egitekoak Erakundeko Zuzendariari ordezkotzan eman diezaizkiokete, bera Osoko Bilkurako Lehendakariordea eta Batzorde Iraunkorreko Lehendakaria denez.

*9. Atala.*– Zuzendaria.

1. Erakunde Zuzendaria Dekretuz izendatuko da eta Dekretuz kargua utziaraziko zaio, eta Sailburuorde maila izango du, ondorio guztietarako.

2. Zuzendariari, Erakundeko legezko ordezkotza duenez, honako hauek dagozkio:

a) Artezte-Batzordeari berariz adierazi ez zaizkion egitekoak eta «Instituto Vasco de la Mujer / Emakumearen Euskal Erakundea»-ri dagozkionak direnak bete eta garatzea, baita Erakundearen arduralaritzazko zuzendaritza bere gain hartzea ere.

b) Erakundearen sortarazte Legeko 4. atalean ohartemandako neurrien Egitasmoa, haztatuzko Erizpen--Idazkia eta herri-agintaritzen jokabideari buruzko Txostena egitea, Batzorde orokorrak ezagutu ditzan eta gero Artezte-Batzordearen Osoko Bilkurak onar ditzan, Jaurlaritzara bidali aurretik.

c) Politika, kultura, ekonomia eta gizarte-bizitzan emakumeak duen partaidetza eta bi seksuetako berdintasuna suztatu eta bultzatzeko gaietan Erakundeari dagozkion ekintza zehatzak Artezte-Batzordeari proposatzea.

d) Artezte-Batzordeko Osoko Bilkuran Lehendakariorde lez aritzea eta Batzorde Iraiunkorreko Lehendakari lez aritzea, horiei dagozkien egitekoak betez.

e) Erakundeko arduralaritzazko zuzendaritza betetzea, eta hari jarritako helburuak lortzeko beharrezko ekintza zehatzak eta erabaki orokorrak hartzea.

f) Bere egitekoak egoki bete ahal izateko, Eusko Jaurlaritzako Sailetatik eta beste herri-agintaritzetatik emakumearen egoerari buruzko beharrezko informazioa batzea, eta, bereziki, arlo horretan herri-agintaritzek egindako iharduketak ezagutzea, hortarako egoki eristen dituen komunikazio bideak ezarriz.

g) Erakundeko zerbitzuetako ekintzen kudeaketa eta barne ikuskaritza zuzentzea.

h) Erakundearen izenean, bere egitekoak garatzeko beharrezko akurapen publiko eta pribatuak ematea, Euskal Autonomi Elkarteko Administrazioaren akurapenerako arau orokorren arabera.

i) Kudeaketa eta iharduerari buruzko urteko Txostena eta Erakundearen aurrekontuko aurregitasmoa egitea Artezte Batzordeak onar dezan.

j) Erakundearen lanarigoaren politika zuzentzea, eta bertara atsikitako lanarigoaren izendapenak, lan-huzteak eta egoeren aldarrikapenak egitea, Herri-Iharduera gaietan agintepidedun Ihardute-sailekin erakidetzan.

b) Fijar el orden del día de las sesiones.

c) Dirigir los debates y, en general, ejercitar las facultades precisas para el adecuado desarrollo de las sesiones.

d) Dirimir los empates con voto de calidad.

*Artículo 8.*– Delegación de funciones.

El Pleno y la Comisión Permanente del Consejo de Dirección pueden delegar en el Director del Instituto, como Vicepresidente del Pleno y Presidente de la Comisión Permanente, aquellas funciones que los mencionados órganos acuerden.

*Artículo 9.*– El Director.

1. El Director del Instituto será nombrado y cesado mediante Decreto, siendo su rango, a todos los efectos, el de Viceconsejero.

2. Al Director, que ostenta la representación legal del Organismo, le corresponde:

a) Ejercer y desarrollar las funciones encomendadas al Instituto Vasco de la Mujer / Emakumearen Euskal Erakundea, que no estén expresamente encomendadas al Consejo de Dirección y asumir la dirección administrativa del Organismo.

b) Elaborar el Plan de medidas, el Informe de evaluación y la Memoria sobre la actuación de los poderes públicos, previstos en el artículo 4 de la Ley de creación del Organismo, para conocimiento de la Comisión Permanente y posterior aprobación por el Pleno del Consejo de Dirección, previa su remisión al Gobierno.

c) Proponer al Consejo de Dirección las acciones concretas que en materia de promoción y fomento de la igualdad de ambos sexos y de la participación de la mujer en la vida política, cultural, económica y social corresponden al Organismo.

d) Vicepresidir el Pleno del Consejo de Dirección y Presidir la Comisión Permanente del mismo ejerciendo las funciones que como tal le correspondan.

e) Ejercer la dirección administrativa del Organismo y la adopción de los actos singulares y resoluciones generales precisas para la consecución de los objetivos atribuidos al mismo.

f) Recabar, para el adecuado ejercicio de sus funciones, de los Departamentos del Gobierno Vasco y demás poderes públicos cuanta información considere necesaria en relación con la situación de la mujer, y, especialmente, de las actuaciones que aquéllos realicen en este campo, estableciendo los mecanismos de comunicación que estime oportunos.

g) Dirigir la gestión e inspección interna de las actividades de los servicios del Organismo.

h) Otorgar, en nombre del Organismo, los contratos públicos y privados necesarios para el desarrollo de sus funciones, de conformidad con las normas generales de contratación de la Administración de la Comunidad Autónoma Vasca.

i) Elaborar la Memoria anual sobre gestión y funcionamiento y el anteproyecto de presupuesto del Organismo para su aprobación por el Consejo de Dirección.

j) Dirigir la política de personal del Organismo y proceder al nombramiento, cese y declaración de las situaciones del personal adscrito al mismo, en coordinación con los Organos competentes al respecto en materia de Función Pública.

k) Artezte-Batzordeak eskuemandako egitekoak eta lege-araubideak emandakoak betetzea.

*10. Atala.*– Idazkaritza Nagusia.

1. Erakundeak iharduera eraginkorra izan dezan, Idazkaritza Nagusia sortzen da, eta horren buru Artezte-Batzordeak izendatuko duen Idazkari Nagusi bat egongo da, eta Zuzendari maila izango du, ondorio guztietarako.

2. Idazkari Nagusiari, zuzenean eta jerarkian Erakundeko Zuzendariaren menpekoa izanik, honako hauek dagozkio:

a) Zuzendariaren izenean Erakundearen ordezkotza egitea, Eusko Jaurlaritzako Sailekiko harremanetan, baita beste Administrazio, Erakunde eta Izaiki publiko eta pribatuekikoetan ere.

b) Egitamu eta egitaraugintza-egitekoak, azterlanak, agiriak, lege eta teknika-aholkularitza, eta kudeaketa biderapenak eta informazio-laguntza bultzatu, erakidetu eta ikuskatzea.

c) Idazkari lanetan Osoko Bilkurara eta Artezte-Batzordeko Batzorde Iraunkorrera joatea, hizpidedun baina hautespiderik gabe izango delarik.

d) Erakundeko zerbitzuak ikuskatu eta erakidetzea: ekonomia-dirubideraketa kudeaketa, ondare eta aurrekontu kudeaketa, eta azpiegura egokitzea eta Erakundeari baliapide materialak ematea.

e) Barne-ihardunbideak egitea: xedapenak, ekintzak, ekonomia eta dirubideetako akurapen edo espedienteen bideratzea eta erroldaratzea, baita kastuak baimentzea ere.

f) Erakundearen lanarigoaren administrazio eta kudeaketa, baita lanarigoaren prestakuntza, gizarte-ekintza eta hobekuntzarako egitamuak eta egitarauak prestatzea ere, H.A.E.E.k gai horretan dituen agintepideen kaltetan izan barik.

g) Erakunde Zuzendariari laguntza teknikoa eta administratiboa ematea, berak premiazkoa deritzon gaietan, eta Zuzendariak berak berariz eskuemandako egitekoak eta lege-araubideak emandakoak betetzea.

h) Erakundeko Zuzendaria kanpoan, gaisorik edo kargua hutsik dagoenean, eta egoera horrek dirauen artean, Ihardute-Sail horrentzat Dekretu honetan ezarritako egitekoak eta agintepideak betetzea.

*11. Atala.*–Administrazio lantaldeak.

Zuzenean eta jerarkian «Instituto Vasco de la Mujer / Emakumearen Euskal Erakunde»-ko Idazkari Nagusiaren menpean izanik, kudeaketa egitarauak garatuko dituzten administrazio lantaldeak egongo dira, eta horiek sortzea eta desegitea baita egitekoak egoztea ere Dekretu honetako garapen eta egiterapenerako xedapenen bidez ezarriko da.

*12. Atala.*– Lanarigoaren legezko jaurbidea.

«Instituto Vasco de la Mujer / Emakumearen Euskal Erakundea»-ren zerbitzurako lanarigoa Erakundeak berak izendatuko du, Lehendakaritza, Zuzenta eta Autonomia Garapenerako Sailak gai horretan dituen agintepideen kaltetan gabe, Euskal Autonomi Elkarteko Administrazioko gainetiko lanarigoari ezarri dakiokeen jaurbide berdina izango duelarik.

k) Ejercer las funciones que le sean delegadas por el Consejo de Dirección y aquellas que le atribuya el ordenamiento jurídico.

*Artículo 10.*– Secretaría General.

1. Para el eficaz funcionamiento del Instituto se crea la Secretaría General, a cuyo frente estará un Secretario General que será nombrado por el Consejo de Gobierno con rango, a todos los efectos, de Director.

2. Al Secretario General, bajo la dependencia directa y jerárquica del Director del Organismo, le corresponde:

a) Representar, por delegación del Director, al Organismo en las relaciones con los Departamentos del Gobierno Vasco, otras Administraciones, Instituciones y Entidades públicas y privadas.

b) Impulsar coordinar y supervisar las funciones de planificación y programación, estudios, documentación, asesoría técnica y jurídica, y procedimientos de gestión y apoyo informático.

c) Asistir al Pleno y a la Comisión Permanente del Consejo de Dirección en funciones de Secretario, con voz y sin voto.

d) Supervisar y coordinar los servicios del Organismo, relativos a la gestión económico-financiera, gestión patrimonial y presupuestaria así como la adecuación de la infraestructura y dotación de los medios materiales del Organismo.

e) Elaborar los procedimientos internos referentes a la tramitación y registro de las disposiciones, actos, contratos o expedientes de carácter económico y financiero, así como las autorizaciones de gasto.

f) Administrar y gestionar al personal del Organismo y preparar planes y programas de formación, acción social y perfeccionamiento del personal, sin perjuicio de las competencias que en esta materia corresponde al I.V.A.P.

g) Prestar asistencia técnica y administrativa al Director del Instituto en los asuntos que éste estime conveniente, ejercer las funciones que éste expresamente le delegue, así como aquellas que le atribuya el ordenamiento jurídico.

h) Asumir, en caso de ausencia, enfermedad o vacante del Director del Organismo, y mientras dure tal situación, las funciones y competencias establecidas para dicho Organo en esta norma.

*Artículo 11.*– Unidades Administrativas.

Bajo la dependencia directa y jerárquica del Secretario General del Instituto Vasco de la Mujer / Emakumearen Euskal Erakundea, existirán unidades administrativas que desarrollen programas de gestión y cuya creación, extinción y atribución de funciones se establecerán a través de las disposiciones de desarrollo y ejecución del presente Decreto.

*Artículo 12.*– Régimen jurídico del Personal.

El personal al servicio del Instituto Vasco de la Mujer / Emakumearen Euskal Erakundea será nombrado por el mismo, sin perjuicio de las facultades que en esta materia ostenta el Departamento de Presidencia, Justicia y Desarrollo Autonómico, estando sometido al mismo régimen aplicable al resto del personal de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

III IDAZPURUA
EKONOMIA-DIRUBIDEETARAKO JAURBIDEA

*13. Atala.*– Ekonomia-baliapideak.

«Instituto Vasco de la Mujer / Emakumearen Euskal Erakundea»-k bere helburuak bete ahal izateko, urteroko aurrekontu berezia izango du, Autonomi Elkarteko Guztizko Diruegitamuen barruan sartuta, baita emariak, ondareak edo egotzi diezaiokeen beste edozein baliapide ere.

*14. Atala.*– Aurrekontuen kudeaketa.

1. «Instituto Vasco de la Mujer / Emakumearen Euskal Erakundea»-ren kudeaketa, Eusko Legebiltzarrak onartutako urteko aurrekontuaren jardunbideari lotuta dago.

2. Sarrera eta kastuen sailkapenari eta horien zehaztasun mailari dagokienez, aurrekontuaren egitura, Euskal Autonomi Elkarteko Guztizko Diruegitamuetarako ezarrita dauden arauei egokitu beharko zaio, Erakundea Diruegitamu horien barne dagoelako.

3. Erakundearen aurrekontuaren egiterapena, kontrola eta kitapena, Administrazioko Erakunde Burujabeei ezarri dakizkiokeen arauekin araupetuko dira.

ALDIBATERAKO XEDAPENA

Dekretu honetako 5.2(d) eta 9.2(h) ataletan Erakundeko Artezte-Saileri emandako agintepideak ez dira erabiliko 1988 eta 1989 urteetako aurrekontuen urteealdiei dagozkien Aurrekontuetan.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadin egun berean jarriko da indarrean.

Gasteiz, 1988.eko abenduak 13.

Lehendakaria,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

CAPITULO III
REGIMEN ECONOMICO-FINANCIERO

*Artículo 13.*– Recursos económicos.

Para el cumplimiento de sus fines el Instituto Vasco de la Mujer / Emakumearen Euskal Erakundea contará con un presupuesto anual propio, dentro de los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma, así como de las donaciones, legados o cualquier otro recurso que pueda serle atribuido.

Artículo 14.– Gestión presupuestaria.

1. La gestión del Instituto Vasco de la Mujer / Emakumearen Euskal Erakundea estará sometida al régimen de presupuesto anual aprobado por el Parlamento Vasco.

2. La estructura del presupuesto, en cuanto a la clasificación de los ingresos y gastos y grado de detalle de los mismos, habrá de adecuarse a las normas y reglas establecidas para los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi, en los que estará integrado el Organismo.

3. La ejecución, control y liquidación del presupuesto del Organismo se regirá por las normas aplicables a los Organismos Autónomos Administrativos.

DISPOSICION TRANSITORIA

Las competencias atribuidas a los Organos de Dirección del Organismo por los artículos 5.2(d) y 9.2(h) del presente Decreto no serán de aplicación a los Presupuestos correspondientes a los ejercicios presupuestarios de los años 1988 y 1989.

DISPOSICION FINAL

El presente Decreto entrará en vigor el mismo día de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 13 de Diciembre de 1988.

El Lehendakari,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

## LAN ETA GIZARTESEGURANTZA SAILA

**3110**

**Abenduaren 20ko 302/88 DEKRETUA, Euskadiko Autonomia Elkarteko 1989.erako lan-egunak onartuz.**

**Autonomia Estatutuak dioenaren arauera, Jaurlaritzari dagokio 1989.erako lan eta jai-egunak onartzea, urtean gehienez hamalau jai-egun direla eta indarrean dauden legeek finkatzen dutena kontutan izanik, horren ondorioz, Lan-Harremanetarako Kontseiluari bere erizpidea eskatu zaiolarik, Lan eta Gizartesegurantza Sailburuaren proposamenez eta Jaurlaritza Kontseiluak 1988.eko abenduaren 20an egindako bileran aztertu ondoren, honako hau**

## DEPARTAMENTO DE TRABAJO Y SEGURIDAD SOCIAL

**3110**

**DECRETO 302/88, de 20 de Diciembre, por el que se aprueba el Calendario Laboral de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el año 1989.**

**De conformidad con lo establecido en el Estatuto de Autonomía, es competencia de este Gobierno establecer dentro de límite anual de catorce días festivos, y en los términos que resultan de la legislación vigente, el calendario de días laborables y festivos para el año 1989, por lo que, habiendo sido solicitado informe al Consejo de Relaciones Laborales, a propuesta del Consejero de Trabajo y Seguridad Social y previa deliberación en la reunión del Consejo de Gobierno celebrada el día 20 de Diciembre de 1988.**